

Jesusen etorrera prestatuko dugu

(Eguberri-egunaren aurreko ospakizuna)

SARRERA

Eguberri-egunaren aurretik (Abendu aldiaren amaieran) familiekin egiteko ospakizuna. Familiari Jesusi harrera egiteko presta dadila eskatzen zaio, horretarako, era sinbolikoan, sehaska prestatuz.

GARAPENA

Atarikoak:

- Ospakizunerako lokala (edo eliza) girotu eta apaindu. Jesus Haurraren sehaska leku nabarmenean jarri. Haurtxoa, ospakizunaren amaieran ipiniko da bertan.
- "Eguberrietako istorioa" delakoan agertzen diren pertsonaiak gurasoen artean banatu, irakurketa egiteko.
- Eskuen siluetak. Gutxienez familia bakoitzeko bat.

Harreraren ostean, denbora hartu giro egokia sortzeko. Ondoren, ospakizunari hasiera eman, parte hartzeko dei eginez.

Ospakizuna gidatuko duenak, galdera egingo die batez ere txikiei:

Badakizue zer ospatuko dugun laster? Nabaritzen ote da horretarako prestatzen diharduguna? (Gabon aldiko girotzea etxe eta kaleetan, Gabon-kantak ikasten ditugu, oporrak izango ditugu...). Eta... zer dela-eta ospatzen ditugu Gabonak? Zer ospatzen dugu? Adi ondorengo istorio honi.

"Eguberrietako istorioa" kontaketa irakurriko dugu orain. Jaiotzaren kontakizunaren (Lk 2, 1-20) moldaketa elkarrizketatua da. Pertsonaiaren bat egokitu zaien aitek eta amek irakurriko dute, antzezten baleude bezala, hizkera nabarmenarekin.

Irakurketa amaituta, ospakizuna gidatzen ari denak galderak egingo dizkie haurrei, istorioa ulertu dutela ziurtatzeko (*Zer gertatu da? Zergatik jaiotzen zen Jesus aska batean? Nor joan zitzaion ikustera?*). Haurrekin entzundakoa komentatu eta pasartea berregiten den bitartean, murala egingo dute jaiotzarekin eta ondoren eskaintzen diren irudi ebakigarriak itsatsiz.

Ospakizuna gidatzen ari denak, honako ideia hauek azalduko ditu:

- Jesus berriz jaioko da Gabon aldi honetan. Gure etxean, gure munduan, gure bihotzean jaioko da. Gure etxera etorri nahi du.
- Belenen ez zuten lekuri aurkitu ostatuan. Eta gure etxean, gure familian... izango ote du lekuri?

- Etxean borrokan egiten dugunean, eztabaidan ari garenean, geurekoiak garenean, esana egiten ez dugunean, barkatzen ez dugunean, laguntzen ez dugunean, norbait triste denean pozten garenean... ez diogu Jesusi lekurik uzten. Eta munduan ere Jesusek ez du non jai, indarkeria hedatuta delako, pertsona askok eta askok ez duelako zer jan, inoren laguntzarik ez duen makina bat lagun delako bakarrik... Alderantziz, erdibanatzen dugunean, adiskide onak garenean, gaizki daudenez arduratzen garenean... Jesusen sehaska prestatzen dihardugu.
- Zer egin dezakegu Jesus mundu hobean, mundu politagoan jai dadin? Zer egin dezakegu gure familian, gure etxean, Jesusek jaiotzeko lekua izan dezan?
- Familia bezala konpromisoa hartuko dugu, Gabon hauetan Jesusi harrera egiteko gure etxea, familia bera, egokitasunez prestatzeko. Eskuen bidez, harrera egiteko, ferekatzeko, lan egiteko, azken batean, Jesusen etorrera prestatzeko balio duten eskuen bitartez adieraziko dugu konpromiso hori.

Eskuaren silueta bana emango diegu familiei. Hortxe idatziko dute "familiaren konpromisoa": Zer egin dezakete Gabon aldian Jesusi harrera egiteko, Jesusen etorrera prestatzeko, Jesusen jaiotzarako elkartasun, zuzentasun eta senidetasun handiagoko mundua atontzeko? (hainbat adibide: bakarrik dagoen bizikidea bisitatu, jaki edo jostailuak eman bilketaren batera, denbora gehiago eskaini familian otoitz egiteari, barkatu eta borrokan egin dudan norbaitekin bakeak egin...).

Ondoren, familia bakoitzak bere konpromisoa adierazi eta eskua Jesusen sehaskan utziko du. Esku guztiak sehaskan daudela, ospakizuna gidatzen diharduenak zera esango du: *Gure eskuek (familiaren konpromisoak) bat eginik harrera egin nahi diote Jesusi. Guztion artean, Gabon aldi honetan Jesusi berriz jaiotzeko aukera eman diezaiokegu. Une honetan, Jesus Haurraren irudia sehaskan jarriko da eskuen gainean eta, elkarrekin, otoitz egingo dute:*

Eskerrik asko, Jesus, Gabon aldi honetan berriz jaioko zarela gure familian. Harrera egin nahi dizugu eta Zu bizi izan zinen bezala bizi nahi dugu, gaizki daudenez arduratuz. Eskerrik asko, Jesus, berriz ere Gabon izango delako.

Amaitzeko, denok dakigun Gabon-kanta abestuko dugu.

Amaitu aurretik, familia bakoitzak bere konpromisoa idatzi duen eskua jasoko du. Etxeko leku nabarmenean jar dezakete, esate baterako, jaiotzan, Jesus Haurraren ondoan.

Irudi ebakigarrien ale bat ere bana diezaiekegu, familia bakoitzak etxean jaiotza osa dezan.

EGUBERRIETAKO ISTORIOA

KONTALARIA – Aspaldian, gutxi gora-behera duela bi mila urte, gure bizitza aldatu zuen istorioa gertatu zen. Gaur egun ere, gure bihotzetan distira egiten duen argia sortu zen... Tira, hori gero komentatuko dugu; orain, hobe izango da hasierara jotzea... Ea gogoratzen dudana... Bai, bi mila urte... Belen... Hemen hasten da:

Gaua hotza eta desatsegina zen. Jose, arotza, gizon langilea eta Maria bere emaztea, Belenera iritsi eta kalez kale zebiltzaten, neka-neka eginda. Maria haurdun zegoen eta haurra jaiotzear:

JOSE – Lasai, Maria, laster aurkituko dugu lekuren bat babesteko.

MARIA – Jakina baietz; Jainkoa onda da eta lagunduko digu. Begira, ostatu bat!

KONTALARIA – Han zuten begi-bistan ostatua eta tximiniatik txingarren ke epela ateratzen zen. Hantxe igaro ahal izango dute gaua arazorik gabe; hantxe aurkituko ditu Jose eta Mariaren harurak gozo-gozo lo egiteko tapakiak, baina...

1. OSTALARIA – Baina, zer uste duzue? Ordaindu gabe ostatu emango dizuedala? Ezta pentsatu ere! Hotz bazarete, izorratu, nik ez diot eta edozeini ostatu ematen!

KONTALARIA – Jose eta Mariak, buelta eman eta aurrera egin zuten. Gero eta hotz handiagoa sentitzen zuten eta gaua ilun-iluna zen. Josek, emazteari samurtasunez lagunduz, berriro esan zion:

JOSE – Lasai, Maria, berandu baino lehen aurkituko dugu lekuren bat babesteko.

MARIA – Seguru baietz; Jainkoak maite gaitu eta lagunduko digu. Begira, beste ostatu bat!

KONTALARIA – Bidexkaren amaieran ohol sendoz egindako ostatu zahar bat ikusi zuten. Hurbildu ahala, beheko suaren berotasuna nabaritu zuten. Hantxe aseko zuten gosea, hantxe jasoko zuten harrera egokia, seguru... baina...

2. OSTALARIA – Sentitzen dut, ostatua beteta dago. Ez dut lekurik zuontzat.

KONTALARIA – Josek bihozminez begiratu zion Mariari. Hau gero eta estuago zegoen. Josek erantzun zuen:

JOSE – Mesedez, nahikoa dugu leku txiki bat, hotza ikaragarria da eta babestu egin nahi dugu.

KONTALARIA – Ostalariak, Maria zein egoeratan zen ikusita, hobeto pentsatu eta esan zuen:

2. OSTALARIA – Atzealdean korta zahar bat dago eta inork ez zaituzte molestaturiko. Ez da leku beroegia, baina kale gorrian baino hobeto egongo zarete. Tori tapaki batzuk eta ogi apur bat.

KONTALARIA – Eskerrak eman eta Jose eta Maria kortara joan ziren. Erdi eraitsitako estalpe zaharra zen eta bertan idia eta mandoa zeuden. Lastoz beterik zegoenez, hotzari hobeto aurre egin zioten.

Iristeaz batera, Mariak haurra izan zuen eta Jesus izena jarri zioten. Egundoko izar-andanak argitu zuen Beleneko gauaren iluntasuna. Eta izar batek egiten zuen distira beste guztien gainetik, ohiz kanpoko gertaera iragarritz.

Handik hurbil artzain batzuk zeuden suaren inguruan eskuak berotzen. Bat-batean aingerua agertu eta esan zien:

AINGERUA – Adi! Egungoko berri pozgarria iragarri nahi dizuet guztioi! Salbatzailea jaio da. Jarraitu izarrari eta aska batean oihaletan batuta dagoen haurraren gaita iritsiko zarete.

KONTALARIA – Berehala, artzainek, beren zorroak eta jakiak hartu eta bideari ekin zioten. Bidean aurkitzen zituzten guztiei esaten zieten:

ARTZAINAK – Belenera goaz, Jainko Haurra ikustera!

KONTALARIA – Aurrera egin eta estalpera hurbildu ahala, taldea gero eta jendetsuagoa zen. Eta leku guztietan errepikatzen zuten:

ARTZAINAK – Belenera goaz, Jainko Haurra ikustera!

KONTALARIA – Estalpera iritsi zirenean, belaunikatu egin ziren. Maria eta Jose haurra zaintzen ari ziren. Artzain bat hurbildu eta esan zien:

1. ARTZAINA – Belenen jaio dan Jainko Haurra gurtzera gatoz. Gauza gutxi dakargu.

KONTALARIA – Eta jateko apur bat eta ardien artileaz egindako jantziak eman zizkion. Josen esan zion:

JOSE – Daukana ematen duenak, mundu osoa jasotzen du.

KONTALARIA – Hau entzutean, artzainak biziki poztu ziren. Bat-batean, edadeko hiru gizon agertu ziren. Aberatsak ziruditen, urrunetik etorritakoak. Iristean, artzainek lekua egin zieten eta haurraren gana hurbildu ziren. Hiruretan zaharrena belaunikatu egin zen eta esan zuen:

MELTXOR – Hauxe da munduari bakea dakarkion haurra.

KONTALARIA – Eta kutxa bat utzi zuen haurraren ondoan. Bigarrena belaunikatu zen ondoren, eta esan zuen:

GASPAR – Ekialdetik gatoz, izarrari jarraituz, juduen erregea gurtzera.

KONTALARIA – Eta beste kutxa bat utzi zuen haurraren ondoan. Hirugarrenak esan zuen:

BALTASAR – Aintza zuri, bakegile zaren horri!

KONTALARIA – Eta beste kutxa bat utzi zuen. Opariak, urrea, intsentsua eta mirra ziren. Luzaro egon ziren haurra gurtzen eta etxera bueltan, Jainkoari aintza eta onspena adierazi zioten ikusi eta entzundako guztiagatik.

Hemen hasi zen historia. Urte asko igaro bada ere, egun batzuk barru berriro bizi eta ospatuko dugu gertaera hura. Gaur, beste behin ere, estalpe hotz hura eta artzainen ahots haiek gogoratuko ditugu, esanez: “Aintza zeruan Jainkoari eta bakea lurrean borondate oneko guztiei!”.